

EGUNGO HIZKUNTZA POLITIKA ETA LEGEDIEK BERA EMAN DUTE

Unai Larreategi

Euskal Herrian Euskaraz

Helbide elektronikoa: komunikazioa@euskalherrianeuskaraz.org

Erabilerari berebiziko garrantzia ematen ari zaio azken urteotan, berau handitzeari begira lan asko egiten ari delarik esparru ezberdinetatik. Agerian dago ordea emaitzak ez direla inondik inora ahalegin horren parekoak. Erabilera handiagotzeko egiten diren jardunei duten garrantzia gutxiesteke, gure ustez, gaur eguneko hizkuntza politikak iraultzen ez diren bitartean ezinezkoa izango da aurrerapauso nabarmenik ematea Euskal Herriaren berreuskalduntzean. Hizkuntza politiken beharrezko aldaketa horretan bi gako nagusi kokatzen ditugularik: ezagutza bermatzea eta status aldaketa.

Begiratzen den tokitik begiratuta, gaur eguneko ezagutza benetan da baxua oraindik. "Soilik" euskal herritarren %25ak ezagutzen du euskara, eta estatistikek ederki erakusten duten bezala, horrelakoetan euskaraz egin ahal izateko probabilitatea ia-ia mirariaren pare kokatzen da. Beraz, hipokresiak alde batera utzi eta hel diezaiogun mamiari. Euskararen egoeraren errudun euskaldunak direla esaten duen politikarekin bukatu behar da. Nahikoa meritu dauka egunerokoan batean eta bestean oztopok oztopo euskara erabiltzen saiatzen den horrek. Eguneroko zama hori nahikoa ez, eta euskalduna inguruan daukan errealitatearen errudun gisa markatzen jarraitu behar al dugu?

Ezagutza bermatzeko ordea gaur eguneko hizkuntza politika aldatu beharra dago. Belaunaldi berrien erabateko euskalduntzea helburu izan behar duen politika behar dugu. Helduen euskalduntzeari ere gaur egun ematen ez zaion garrantzia eman beharko litzaioke, doakotasunetik abiatu eta herritar orori ezagutza eskubidea bermatzeko beharrezkoak dituen aukera eta tresnak eskainiz.

Aldarrikatzen dugun hizkuntza politika horrek ordea, ez ditu aske bere hegoak, espainiar zein frantses legedien kateez loturik aurkitzen baita. Euskara, espainiar zein frantziar hizkuntzen menpeko bihurtzen dute lege horiek, eta status horri men eginez gaur egun Euskal Herrian zehar aplikatzen diren hizkuntza politikekin ezinezkoa da euskal herritarren eguneroko bizimodua berreuskalduntzea. Status aldaketa behar du beraz euskarak, horretarako ordea, euskaldunok euskara normalizatzeko beha-

rrerko ikusten ditugun neurriak hartzeko eskubidea beharrezko dugu. Eta horrek izen bat dauka: hizkuntza autodeterminazioa.

Batzuk diote, euskara ez dela politikarekin nahastu behar, kaltea besterik ez diolako ekartzen gure hizkuntzari. Eta noski, kritika hori ez zaio zuzentzen Espainiar zein Frantziar estatuen politika zapaltzaileari, euskarari dagokiona aldarrikatzen dugunoi baizik. Espainiar hizkuntzak Espainian, eta frantsesak Frantzian daukan statusa besterik ez dugu eskatzen euskararentzat bere lurrean. Inork sinisten al du berreuskalduntze prozesuarentzat kaltegarri izango litzatekeela pauso hori? Badakigu horrek ez lukeela automatikoki lurraldea berreuskaldunduko, hor daukagu Irlandako adibidea, baina inork ezagutzen al du menpeko hizkuntza izanaz normalizazioa lortu duen hizkuntzarik?

Status berri horrek, euskara Euskal Herrian berezko hizkuntza dela eta ondorioz euskararen ezagutu beharra jasoko luke, euskal herritar orok jakin beharko luke euskara. Eta ondorioz esaten dugunean, zerbait logiko gisa ulertzen dugulako diogu. Logikoa deritzogu bertakoa den hizkuntza, bertako herritarrek ezagutzeari. Espainian espainiarra, eta Frantzian frantsesa bezala, Euskal Herrian euskara. Badira diotenak, derrigortasunak, obligazioak lagun txarrak direla euskararentzat, euskarara gerturatzeko baino uxatzeko balio omen duelako diskurtso horrek. Nolabait, neurri eta erabaki sinpatikoetan oinarritutako politika egin behar dela alegia. Eta nora ekarri gaitu azken urteetako politika sinpatikoak? Euskararen erabileraren neurketaz gain, administrazioetan euskararen egoera, helduen euskalduntzea, lantegietako euskara erabilera, hedabideetan euskararen presentzia... gainbehera edota aurrerapauso gabe egotea besterik ez digu ekarri. Berreuskalduntze prozesuak antipatikoak diren erabakiak eskatzen ditu, eta horiek hartu eta defendatzeko irmotasuna.

Azken finean berreuskalduntze prozesua garatu ahal izateko, hizkuntza gatazka gainditzea ezinbestekoa dela deritzogu. Dagozkigun eskubideen jabe izatea lortuko bagenu, beharrezko neurri eta erabakiak hartzeko moduan egongo ginateke, eta gaur egun euskararen normalizazioaren alde egiten den ahalegin berdinarekin ere askoz uzta hobea jasoko litzateke gure irudiko.

Garaiak argiago edota ilunagoak izan daitezke, baina egoerak egoera euskarak bizi duen mendekotasun egoera iraultzearen alde indar egin beharra daukagu. Hizkuntza autodeterminazioaren alde lan egiteak merezi du, Euskal Herria berreuskalduntzeko aukera onena edota hobeto esanda, gelditzen zaigun aukera bakarra delakoan gaude.■

Ezagutza bermatzeko ordea gaur eguneko hizkuntza politika aldatu beharra dago. Gutxienez belaunaldi berrien erabateko euskalduntzea helburu izan behar duen politika behar dugu. Baina gutxieneko hori markatuta, helduen euskalduntzeari ere gaur egun ematen ez zaion garrantzia eman beharko litzaioke, doakotasunetik abiatu eta herritar orori ezagutza eskubidea bermatzeko beharrezkoak dituen aukera eta tresnak eskainiz.